

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA
2023KO APIRILAREN 4KO OHIKO BILERAREN AKTA

Bertaratuak:

José Antonio Rodríguez jauna, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Lankidetzaren sailburuordea eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde Arteko Batzordearen presidentea

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria (aurrerantzean, eLankidetzaz).

Monika Hernando andrea, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Juan Manuel Balerdi, Euskal Fondoaren ordezkari gisa.

Noemí de la Fuente andrea, idazkaria, hitz egiteko eskubidearekin eta botoa emateko eskubiderik gabe.

Gainera, hauek bertaratu dira presidenteak gonbidatuta, hitz egiteko eskubidearekin eta botoa emateko eskubiderik gabe.

Agurtzane Orthous andrea, Donostiako udaleko ordezkari gisa.

Miguel Pérez jauna, Bilboko Udaleko ordezkari gisa.

Alazne Camiña andrea, eLankidetzaren ordezkari gisa.

Ana Telleria andrea, eLankidetzaz (idazkariaren laguntzailea).

Ezin izan dira bertaratu:

Itziar Urtasun andrea eta Ernesto Sainz jauna, EUDELen ordezkari gisa.

Kokapena: Online saioa:

Eguna eta ordua: 2023ko apirilaren 4ean, 10:30ean.

2023ko apirilaren 4ko 10:52an, José Antonio Rodríguez Garapenerako Lankidetzaren Erakunde Arteko Batzordearen (GKEB) Presidenteak hasiera eman dio bilerari. Barkamena eskatu du atzerapenagatik, Kontrol Ekonomikorako Bulegoarekin bilera garrantzitsu bat baitzuen, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Legearen Aurreproiektuaren baitan.

Bileraren hasieran gogorarazi du GKEBren egungo osaeraren azken bilera dela. Eskerrak eman dizkie guztiei parte hartzeagatik, ekarpenengatik eta elkarrekin lan egiteko borondatearengatik, bereziki, lege berriaren gainean egindako lanaren kasuan. Adierazi du bilera honen helburua ezarritako gaien errepaso egitea eta maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoren osatuko den batzorde berriarentzako abiapuntua ezartzea izango dela.

Proposatutako gai-ordena gogorarazi du:

1. Aurreko bilerako akta onartzea.
2. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektua: egoerari buruzko informazioa.
3. AKUAL: egoerari buruzko informazioa eta hirugarren edizioari begira egin beharreko pausoak.
4. St. Louis, Senegal: erakundeen arteko etorkizuneko ekimenaren egoerari buruzko informazioa.
5. Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria: egoerari buruzko informazioa eta etorkizuneko jarduketako ildoak identifikatzea.
6. Euskadiko GGKE-en koordinakundea: erakunde bakoitzarentzako dirulaguntza zuzenei buruzko informazioa eta elkarrekin landu beharreko gaiak identifikatzea.
7. (H)ABIAN 2030: egoerari buruzko informazioa.
8. PLATFORMA: 2023-2026rako programazioari buruzko informazioa.
9. Talde teknikoan landu beharreko gaiak definitzea.
10. Beste gai batzuk, eskariak eta galderak.

Gai-zerrendaren aurkako arrazoirik aurkeztu ez denez, lehenengo puntuari ekin diote:

1. AURREKO BILERAREN AKTA ONARTZEA

2022ko otsailaren 4an egindako ohiko bileraren eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Legearen aurreproiektuari buruzko txostena onartzeko 2022ko irailaren 28an egindako ezohiko bileraren akten gaineko oharrik egin ez denez, bertaratu diren pertsona guztien baiespenez onartu dira.



Acta CICD
20220204_final.pdf



Acta CICD
20220928.pdf

2. LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKADIKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA

Presidenteak aipatu du prozesu luze honetan zehar eragile askorekin kontrastatu ahal izan dela, eta dagoeneko amaierako fasean dagoela Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legea. Gehitu du Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostenak soilik falta direla.

Esan duenez, egutegiaren aurreikuspena da proiektua uda baino lehen onartzea eta irailean legebiltzarrera eramatea. Gehitu duenez, asko kontrastatu da aurreko faseetan eta, hortaz, legebiltzarreko tramitazioa azkarragoa izatea espero da, batez ere agerraldien fasean. Legegintzaldi honetan onartzea espero du, babes handiarekin.

Kontrol Ekonomikorako Bulegoari dagokionez, Paul Ortegak aipatu du gai hauek esanguratsuak direla: (i) konpetentziak eta zereginen banaketak hiru mailen artean; (ii) dirulaguntzei buruzko 16. artikulua; eta (iii) finantzaketari buruzko 17. artikulua. Jakinarazi du goizean Kontrol Ekonomikorako Bulegoarekin izandako bileran bide bat ezarri dutela hiru alderdi horiei dagokienez adostasun batera heltzeko.

Gehitu du bi gaik eragin zuzena dutela GKEBren edo bertako kideengan:

- 1) Euskadiko sektore publikoa nomenklatura (besteak beste, espezifikoki EUDEL eta Euskal Fondoa izendatzea zalantzan jartzen da).
- 2) GKEBren osaera eta funtzioak definitzea legean; noraino definitu behar den eta araudia garatzeko zer gera daitekeen argitzeke dago.

Adostasuna dago arau batek hala ezarri ezean, ez dela ez beharrezkoa, ez egokia izango legearen aurreproiektuan osaerari eta funtzioei buruzko definizio itxia egitea.

Natxo Rodríguezek aipatu du proiektu bat legebiltzarrera sartzen denean, normalean tramitazioak urtebete behar duela eta presioa egin behar dela legegintzaldia amaitu aurretik onartzeko.

Joseanek otsailean argitaratu zen estatuko legeari buruz informatzen jarraitu du. Lege horrek lau gai nagusirako araudiak garatzen ditu: kooperantearen estatutua, kooperazio finantzarioa, AECIDen erreforma, eta dirulaguntzak eta subentzioak. Lankidetzarako dirulaguntzei eta subentzioei dagokienez, elkarrizketak hasi dituzte beste Autonomia Erkidego batzuekin, eta galdetu du ea Euskaditik posizio bateratu bat izateko interesik badagoen. Halaber, atzerapen-interesei buruzko laugarren xedapen gehigarriak duen garrantzia aipatu du. Eta lankidetzara delegatua erkidegoan soilik planteatu izana deitoratu du, eta ez probintzian edo udalerrian.

Juanma Balerdik jakitera eman du Euskal Fondoa eta CONFOCOS osatzen duten funtsak oso gustura daudela udalerriko lankidetzaren aitortzarekin eta legean dauden funtsekin, baita sektoreko konferentzian gehitzeko dagoen aurreikuspenarekin ere, araudien garapenen kontura.

3. AKUAL: EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HIRUGARREN EDIZIOARI BEGIRA EGIN BEHARREKO PAUSOAK

Presidenteak Juanma Balerdiri eman dio hitza. Hark adierazi du AKUAL programa bere bigarren edizioan dagoela eta 2024ko maiatzera arte iraungo duela. Eraikitzearen zatia ondo doa epeei dagokienez. Gehitu du datozen hilabeteetan komunikazioaren arloa jarriko dela martxan. Segidan azaldu du ekimenak aurreikuspenak sortu dituela El

Salvadorri eta erkidegoari dagokionez. Eta Costa Rica gero eta konprometituago dagoela eta Lege Batzordeak laguntza eskatu diola URari uraren legea egiteko.

Jakinarazi du bigarren edizioaren azken urtean, eLankidetzaren laguntzarekin, hirugarren edizioaren aurretiazko identifikazioa egitea aurreikusten dela, eta, ziurrenik, saneamenduan oinarrituko dela hornikuntzan baino gehiago eta, halaber, ura izateko eskubidea, genero-berdintasuna eta komunikazioa indartzea are gehiago nabarmenduko direla.

Halaber, iragarri du litekeena dela Nafarroako Gobernua eta Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA) AKUALen sartzea. Eta oso interesgarria izan daitekeela hori Nafarroak dituen ezaugarriengatik eta landa-eremuko sistemengatik.

Paul Ortegak ekimenean parte hartzera animatu ditu ekimenean ez dauden GKEBko erakundeak.

Fernando San Martinek Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzaren eta ingurumenaren sailen arteko parte-hartze bateratuan duen esperientzia partekatu du.

4. ST. LOUIS, SENEGAL: ERAKUNDEEN ARTEKO ETORKIZUNEKO EKIMENAREN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA

Paul Ortegak aipatu du legegintzaldiaren hasieratik erakundeen arteko etorkizuneko ekimen bat lantzen ari direla Senegalen. Euskal Fondoaren Batzordeak onartu zuen bere esku-hartze arloa Afrikako kontinentera zabaltzeko aukera aztertzea. Aurretiazko identifikazio bat egin zen Gasteizko Udalaren funtsekin. Eta, egun, Bizkaiko Foru Aldundiak ekarpen bat egiten du ekimen pilotu bat identifikatzeko garaian aurrerapausoak egiteko. Hasierako azterketan ikusi zen komunarekin lan egitea egokia dela eta lehen bilera birtuala egin dute Saint Louiseko Komunaren Garapenerako Agentziaren zuzendariarekin.

Paul Ortegak gehitu du apirilean bidaia instituzional bat egiteko aukera aztertu zutela, baina, azkenean, ez dutela egoki ikusi, udal- eta foru-hauteskundeak daudelako.

Sektorearen mailan, gobernantzaren arloa lehenestea aurreikusten da (beste sektore batzuen aurrean, hala nola urarena eta saneamenduarena, ondarearena edo hondakinena), arlo horretan lankidetzaren teknikoarekin eman daitekeen balio erantsiarengatik, termino ekonomikoetan ekarpen xumea eginda.

5. EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN ATARIA: EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ETORKIZUNEKO JARDUKETA ILDOAK IDENTIFIKATZEA.

Joseanek gogorarazi du kargu berriekin berrartu beharreko gai bat dela foru aldundiko aurrekontuen kalkulari buruzkoa, zer partida aurreikusi jakiteko. Eztabaida labor baten ostean erabaki dute legegintzaldi berrirako uztea.

Noemí de la Fuentek atarian egiten ari diren hobekuntzen berri eman du. Nabarmentzekoa da ebaluazio-txostenak hala aurreikusten duten ekimenean gehitzeko ekimen pilotua.

2024tik aurrera Atarira udalerri berriak sartzeko helburua berrartzea ere erabaki dute.

Halaber, Noemí jakinarazi du 2024an Atariak 10 urteko datu pilatuak izango dituela eta aldeei eskatu die inpaktu handiagoa duen komunikazio-ekintzaren bat egiteko.

6. EUSKADIKO GGKE-N KOORDINAKUNDEA: ERAKUNDE BAKOITZARENTZAKO DIRULAGUNTZA ZUZENEI BURUZKO

INFORMAZIOA ETA ELKARREKIN LANDU BEHARREKO GAIK IDENTIFIKATZEA.

Erakunde bakoitzak 2023ko ekitaldirako Euskadiko GGKE-en Koordinakundeari emandako zenbatekoak partekatu dituzte.

eLankidetzak	200.000 €
Araba	30.000 €
Bizkaia	55.000 €
Gipuzkoa	45.000 €
Bilbo	25.000 €
Donostia	36.500 €

Paul Ortegak gogorarazi du Koordinakundearekin bilerak egin direla espazio demokratikoa ixteari buruz eta gaiari hauteskunderen ondoren eustea erabaki dute.

7. (H)ABIAN 2030: EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA

Noemí de la Fuentek ANESVAD eta UN Etxearen sartzeko berrien eta adierazleen gidatik abiatuta egiten ari diren lanaren berri eman du. Juanma Balerdik lantzen ari diren [webgune](#) berriaren berri eman du.

8. PLATFORMA: 2023-2026RAKO PROGRAMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Presidenteak esan du PLATFORMAren parte-hartzea berrituko dela 2023-2026 aldirako, Euskadi-Basque Country izenaren pean. Horren barruan sartzen dira Euskal Fonoda, eLankidetzak eta Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen ordezkariak. Erantsi du, bilera horrekin batera, lehen barne-saioa egiten ari direla aldi horretarako lan-plana prestatzeko.

Iragarri du apirilaren 20an egingo duten Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkuran aurkeztuko dutela Aitor Perez aholkulariari enkargatutako lankidetzaren deszentralizatuari buruzko lehen txostena. Txosten horretan, lankidetzaren deszentralizaturako bideratutako dirulaguntza ofizialen zifrak eta lankidetzaren zuzenari buruzko kasu-azterketak aztertzen dira. Eta uztaila baino lehen tailer bat egingo dela PLATFORMAren baitan. Bi ekitaldietara gonbidatu ditu kideak eta aurki bidaliko zaie informazioa.

9. TALDE TEKNIKOAN LANDU BEHARREKO GAIK DEFINITZEA

Talde teknikoan landu beharreko gaien artean daude hauek:

- Euskal lankidetzaren publikoaren ataria
- AKUAL programa
- Ekimen berria Senegalen
- eLankidetzaren Ekintza Humanitarioaren Estrategiaren eta proiektuentzako dirulaguntza-tresnen ebaluazioa.
- Eusko Jaurlaritzaren giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babeserako programaren diagnostikoa-ebaluazioa sozializatzea (maiatzaren 3an, 12:00etan, Lakuan).
- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde Arterako Batzordearen dekretuaren zirriborroa garatzea.

10. BESTE GAI BATZUK, ESKARIAK ETA GALDERAK.

Juanma Balerdik jakinarazi du Saharako emakumeen ahalduntze politikorako tailer bat dagoela programatuta uztailaren 17ko asterako, eLankidetzak, Giza Eskubideen, Biktimen eta Dibertsitatearen Zuzendaritzak eta Emakundek elkarlanean antolatuta. Tailerrak goizez izango dira eta bisita instituzionalak arratsaldez.

Natxo Rodríguezek modu positiboan baloratu du legegintzaldi honetan garatutako lankidetzaz-izaera eta espero du legea egiteko esparruan geratzen den zerbait ez izatea, baizik eta etorkizunean jarraipena izatea. Espazioa eskertu du, oso egokia delako, eta etorkizunean ere horrelakoa izan dadin jarraitzera animatu du. Fernando San Martin eta Ainhoa Campo bat datoz haren hitzekin.

Norbaitek eskaririk edo galderarik duen galdetu du presidenteak. Landu beharreko gai gehiago ez dagoenez, presidenteak amaiera eman dio saioari, 12:24ean.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
ERAKUNDE ARTEKO
BATZORDEAREN IDAZKARIA**

JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
ERAKUNDE ARTEKO
BATZORDEAREN PRESIDENTEA**